



**KANTALDIA**  
**«Attuli, kantuz-kantu»**

**MARTXOAK**  
 ASTEAZKENA  
 19:30ETAN

**2**

**A**ttuli (Alexis Etchecopar), Barkoxtarra zen, 1924ean sortua, 2005ean zendua. Zuberoko oso famatua zen, kantuen hitzak eta musikak konposatzen zituelako, baina ez zitzaion gustatzen plazaz plaza ibiltzea. Haren bizitzaren eta kantugintzaren hobeto ezagutarazteko, Patrick Queheille Barkoxtarrak pastorala bat idatzi du «**Xahako**» (zahatoa) izenekoa, iaz, hiru aldiz antzestu dutena. Hain zuzen, pastoreko protagonista zen Jean-Noël Pinque eta beste hiru kantari entzungo ditugu, beren ahots arraro eta ederrekin Attuliren obra argitan ezarriko digutenak. Hasieran, Patrick Queheille idazleak azalpenak emango dizkigu.

**KANTARIAK**  
**Jean-Noël Pinque,**  
**Jean-Pierre Luro,**  
**Lucien Joa,**  
**Jean-Marie**  
**Haritchabalet**

**AURKEZLEA**  
**Patrick Queheille**

**KONTZERTUA**  
**Kalakan**

**KANTARIAK**  
**Thierry Biscary,**  
**Paxkal Indo,**  
**Jamixel Bereau**

“Iturri zaharretik edaten dut, ur berria edaten, beti berri den ura, betiko iturri zaharretik...”.

**J**oxean Artzeren olerki horrek **KALAKAN** taldearen unibertsoaren atek irekitzen ditu. Tradizioaren haurrak baldin badira, Thierry, Paxkal eta Jamixel nortasun ezberdinekin josiak dira. Hiruek beren euskal nortasuna adierazten baldin badute, rocka, telebista, gaurko Euskal Herria eta biharko munduaren haurrak dira ere bai.

**KALAKAN** taldeko kideek funtsezko hautuak egin dituzte : perkusioa eta ahotsa, erritmoa eta melodia. Bestean gana, etorkizunaren gana eta azkenik beren gana joateko abiapunduak dituzte.

**KA** : txalapartaren soinu ozenak bezain gogorrak.  
**LA** : ahotsak, batzutan joteroenak bezala, edo ezti eztiak sehaska kantua emanez ; botz indartsuak, harrotasunez beterik, emankorrak eta leialak. Maiz mikrofonorik gabe taulagainean agertzen da taldea, harreman sinpleago eta zuzenago bat lortzeko entzulegoarekin.  
**KAN** : Euskal Herriko danborren (atabal, ttun ttun, pandero) eta hirukoteak sortu dituen danborren (danbolero, danbottiki) soinu indartsuak.

**IPUINALDIA • eSTREINALDIA**  
**«BIRIBILKETA, luma beltza»**

**KONTALARIA**  
**Koldo Amestoy**

“Luma beltz bat, emakumezko batzu, gizonezko beste hainbeste, espiraletan eramanak. Guztiak biribilketan doaz, labirinto baten barnean bezala irteera bilatzen...”.

Herri ezberdinetako kulturetan praktikatzaren diren espiral erako sinboloan oinarriturik, biribil dantzaren espirituan egokitu ikuskizuna, ibilketa, bilaketa...

Bizitza eta heriotzaren arteko aurrez-aurreko aspaldiko jokoa, bakardadea eta besteaz kontzientzia izatearena, bakoitzaren askatasuna eta bere lekua kidego barrenean...


Koldo Amestoy kontalari famatuaren azken obra, hegoaldean lehen aldiz Koldo Mitxelena Kulturunean eskainiko diguna!

**MARTXOAK**  
 ASTEAZKENA  
 19:30ETAN

**30**



**APIRILAREN 6tik**  
**MAIATZAREN 7ra**



**eRAKUSKETA**  
**Herri Ixilean**  
**Jon Cazenaven**  
**argazkiak**

Koldo Mitxelena Kulturuneko **Ganbaran**

**J**on Cazenave, Donostian sortutako argazkilaria gaztea da : “Baiona bisitatu nuen behin eta Chemin de Cazenave izeneko kalera allegatu nintzen. Une horretan, Iparraldean nire abizen eta familiaren arrastoari jarraituko niola erabaki nuen”. Jonek bidaia batean, bere abizenarekin lotutako leku, subjektu eta gertaera historikoen inguruko informazio bilaketan oinarritutako proiektua garatu du. Interes hori, jatorri horien aurkikuntzan baino, gehiago oinarritzen da Iparraldean zehar, Hegoaldetik abiatuta eginiko bilaketa-prozesuan.

Proiektu hau, Euskal kultur erakundeak, Getxoko Udalarekin ekoiztutako erakusketa ibiltari batean obratua izan da.

**mINTZALDIA**  
**«Aberri txiki, Aberri handi»**

**HIZLARIA**  
**Peio Etcheverry-Ainchart**  
 Historian doktore gaia



**E**uskal gatazka politikoa aztertzen denean, XXI. mende hasiera honek erakusten du egoera soziopolitiko guztiz ezberdina dela Euskal Herriko bi aldeetan. Ipar Euskal Herria eta Estatu frantsesaren arteko loturen historia zaharrea datza egoeraren jatorria, bereziki nazioen eraikuntzaren bilakaeran. Hainbat faktorek eragin zuten Hegoaldea Madrilgo botere politikoarengandik urrun gelditzen zen bitartean, Iparraldea Pariseri gero eta sakonkiago lotzen zela, batez ere XIX. mendean zehar, III. Errepublikak bultzaturik: frantses hezkuntza sistemaren sortzea, zerbitzu militarrena, *citoyenneté* edo herritartasun frantsesaren zabaltzea, besteak beste. Ondorioz, Pirinioetako alde batean bi nazio aurrez-aurre eraikitzen zirelarik – euskalduna eta gaztelera – beste aldean euskal «aberri txiki» bat frantses «aberri handiaren» baitan murgiltzen zen. Euskal «asimetria» baten jatorria...

**MARTXOAK**  
 ASTEAZKENA  
 19:30ETAN

**9**

**MARTXOAK**  
 ASTEAZKENA  
 19:30ETAN

**16**



**hITZALDI UMORETSUA • eSTREINALDIA**  
**«Bidaso: biga so! Irri Iparrak eta Hego Erak»**

**Kike Amonarriz eta Pantzo Hirigarai**

**Z**ergatik hitz egiten dute horren ozen gipuzkoarrek? Zergatik ari dira baxenabartarrak dragatzen, arabarrak ligatzen ari diren bitartean? Berdinak ote dira Zuberoko neskenegünetako eta Bizkaiko zapatuetako gauak? Zenbateko aldea dago Lezotik Azkainera, 30 km ala 1000 argi-urte?

Ba al dugu elkarren berri? Ustez, dakizkigunak ez al dira topikoak edo kliseak? Edo benetan, horrelakoak gara?

Bi so. Bi begirada, Bidasoaren bi aldeetatik bi aldeetara. Bidasoaren izenak berak ez ote du Euskal Herriaren bitasuna nabarmentzen hitz hasierako BI horrekin? Edo bat gara Bidasoa guztien gainetik? Baina, zerk batzen gaitu, eta zerk bereizten?

Galdera hauen eta beste askoren erantzuna Pantzo Hirigarai eta Kike Amonarriz eskutik, umorea nagusi...

**MARTXOAK**  
 ASTEAZKENA  
 19:30ETAN

**23**



**dOKUMENTALA**  
**« Iparraldea XXI : Gaurko Iparraldea ezagutzen ote duzu ? »**

Koldo Mitxelena Kulturuneko atarian etengabeko emanaldia

**E**uskal kultur erakundeak ekoiztutako hamazazpi minutuko dokumental honetan, Iparraldearen errealitatea, modu dinamikoan, ikusten da : Euskal Herria Zuzenean (EHZ) festibala, surfa, musika (MAK rap taldea batetik eta Amaren Alabak taldea, bestetik), bertsolaritza (Maiana Irigoyen eta Amets Arzallus), dantza ... Hori dena, XALA pelotari ospetsuak, kazetari inprobisatu gisa, egiten dituen elkarrizketen bidez. 2010an Gipuzkoako Aldundiarekin plazaratua izan den bideo honek, Ipar Euskal Herriari buruzko irudi dinamiko eta eguneratua eskaintzea xede du, « aurrez ezarritako estereotipoak urrun utziz ».

**MARTXOAREN 3tik**  
**31ra**

# Iparraldea bertan 10 urte!

## PROGRAMA

**MARTXOA**  
ASTEAZKENAK  
19:30 ETAN

**2** KANTALDIA: «Attuli, kantuz-kantu»  
KANTARIAK Jean-Noël Pinque, Jean-Pierre Luro,  
Lucien Joa, Jean-Marie Haritchabalet  
AURKEZLEA Patrick Queheille

**9** MINTZALDIA: «Aberri txiki, Aberri handi»  
HIZLARIA Peio Etcheverry-Ainchart

**16** KONTZERTUA: Kalakan  
KANTARIAK Thierry Biscary, Paxkal Indo,  
Jamixel Bereau

**23** HITZALDI UMORETSUA • eSTREINALDIA:  
«Bidasoa, biga so!  
Irri Iparrak eta Hego Erak»  
Kike Amonarriz eta Pantzo Irigarai

**30** iPUINALDIA • eSTREINALDIA:  
«Biribilketa, luma beltza»  
KONTALARIA Koldo Amestoy

**APIRILAREN 6tik MAIATZAREN 7ra**  
eRAKUSKETA  
Herri Ixilean Jon Cazenavere  
argazkiak

**MARTXOAREN 3tik 31ra**  
dOKUMENTALA  
«Iparraldea XXI :  
Gaurko Iparraldea  
ezagutzen ote duzu ? »

Mila esker eta anitz urtez!

“Haizea dator iparraldetik...”

kantatzen zuen jadanik gurekin ez dagoen poetak. Hala ere, oraindik, haizea badatorrigu eta 10 urte hauetan, urtero urtero, Ipar Euskal Herrian sortzen den kultura antizari leku bat eman diogu.


Euskal Kultur erakundearen eskutik, abeslariak, musikariak, kontalariak, antzerkilariak eta hizlariak izan ditugu gure artean, mugaz bestaldeko herrien eta herritarren izaera eta historia dastatu eta ikasteko aukera ezin hobea eskaini digutenak.

Erakunde horretatik proposamen sutsuak eta ederrak jaso ditugu eta horregatik gure eskerrik beroenak eman behar dizkiogu, bereziki Daniel Landart-i, urte hauetan berarengandik heldu zaizkigun aholku eta ekoizpen guztiengatik.

Lota Jauregia  
64480 Uztanteze  
00 33 559 932 525



RealVideo bidez zuzenean.



Departamento de Cultura y Euskera  
Departamentu  
Kultura eta Euskara  
Euzko Foru Aldundia  
Euzko Foruaren Gipuzkoa



www.gipuzkoa.net/kultura  
Tel.: 943 112 893  
2006 Donostia  
Urdaneta kalea 9

KOLDO MITXELENA Kulturunea

kulturunea



# Iparraldea bertan

# 10 urte!



2011

**MARTXOA**  
**APIRILA**  
**MAIATZA**